

BEZEROEKIN HARREMANA

Bezeroekin harremana izateko zerbitzu automatikok eta denda fisikoa izango ditugu. Bi motatako harremanak eskainiko ditugu bai pertsonalak edo aurrez aurrekoak eta web-aplikazioei bidezkoak.

Harreman pertsonalak bulegoan eskainiko ditugu. Gainera orain Covid-19 dela eta konturatu gara, mugikortasun arazoak sor daitezkeela eta oso garrantzitsua dela harremana mantentzea eta horregatik web orri bat sortu dugu kontaktu hori ez galtzeko. Web orri horretan gure posta elektronikoa, sare sozialak eta telefono zenbakia daude gurekin kontaktuan jarri ahal izateko.

Bestalde, bezeroek gure produktuak erostean, geure telefono zenbakia emango diegu edozein arazo izango balute, erraz jartzeko harremanetan gurekin, eta guk beraiei ahalik eta azkarren laguntzeko. Modu honetan, oso erreza izango zaigu bezeroekin kontaktuan egotea.

